



00:03:11



Nondik  
gatozen eta  
nora goazen



BERNABAI

2

**Kristina Mardaras**  
1985-1986ko  
Txapelketa  
Nagusiko  
kanporaketa  
batean. XENPELAR  
DOKUMENTAZIO  
ZENTROA.

1985.01.01. 10.00.00.00  
GABAREN ANTEA

Ex  
Zaltzen  
Kaltzen  
para





# Nondik gatozen eta nora goazen

**Bizkaiko Bertsozale Elkartean 40. urteurrena (1983-2023)**

**B**izkaiko Bertsozale Elkartea sortu zutenean ez zen ez bertsozale ez elkarte; ez zuten horrelakorik sortu, ez gaur egungo esanahiarekin, bederen. Orduko hartan, orain 40 urte, bertsolari ikasleen elkarte sortu zuten, Bizkaian zeuden bertso-eskolen sare bat, entitate bat. Bertsolari «nobelen» elkarte bat baino ez zen; horrela jaso zuten Bilboko Gobernu Zibilaren sorrera aktan, gazteleraz. Sorrera akta horretan agertzen diren bederatziz izenek –sasi horretako bertso-eskolen ordezkariak– nekez imajinatuko lukete tramite burokratikoak errazteko sortutako elkarte hark hartuko lukeen dimentsioa; ezta beraiek batu zituenak, bertsoaren ikasketak alegia, markatuko lukeela elkartearen egungo ildo. Bizkaiko bertso eskoletako ordezkariak euren arteko sarea erregistratu zutenetik lau hamarkadara, ikasturteko 10.000 ikasleren eskola bihurtu da Bizkaiko Bertsozale Elkartea, eta bertsoaren babesleku.

Bizkaian, 1980ko hamarkadan, bertso saioak ugaritzen ari ziren. Herri askotako bertso eskolek antolatzen zituzten, euren erara. Aurretik ere egon zen elkartearen arteko sare bat sortzeko ahaleginik, baina erakundeen trabek bultzatu zuten elkarte: Bilboko Aste Nagusiko eta udaberriko saioak antolatzeko elkarte bat behar zuten, eta horrek batu zituen herrialdeko sei eskola. Elkarki babes emateko era bat izan zen, berme bat legearen aurrean, gairiak, izan, nahasiak baitziren. «Giro eskaza zegoen, euskaraz zegoen edozer zen susmagarria», ondo gogoan ditu garaiak

Kristina Mardarasek, elkarteko sortzaileetako batek. Orduan ere bidea ez zen erraza izan, eta elkartearen sortzaileek akorduan dituzte Bilboko Gobernu Zibilera egin behar izan zituzten osteratu guztiak, traba bat eta beste saihesten. Azkenean, gaztelerazko izena ere jarri behar izan zioten, eta horrela bihurtu zen Bizkaiko Bertsolari Ikasleen Elkartea «*Asociación de Versolaris Noveles de Vizcaya*». Horrela, behintzat, eman zioten baimena sortzeko.

Santutxu izan zen elkartearen hazia: Bizkaiko lehena eta Euskal Herriko lehenengotarikoa. Bertako bertso eskola ere halaxe izan zen, aitzindari. Eta lehen pausu horren zuztarria nor ziren argi daukate: Xabier Amuriza, bertsolaritzaaren inguruan eman zituen ikastaroengatik, eta Joserra Etxebarria, Santutxuko bertso eskolan egin zuen atzeko lanagatik.

Bilboko uriolen urtean sortutako elkarte horrek bere bidea hasi zuen, eta hasiera ia kasualitatearen ondorio izan bazen ere, bere segida kasualitate hutsea izan zen; lanaren ondorio. «Bizkaiko Bertsozale Elkartea goiztiarra izan zen. Indarren konfluentzia baten ondorio da: herri mugimendua, Ikastolen Elkartea eta besteren artean. Nire sentsazioa da bateko eta besteko indarrak hartu genituela», dio Natxi Aranburuk. Indarren konfluentzia horretan, ehundaka izan dira parte hartu dutenak; elkarteak ehundaka diseinatzaile eta jostun izan ditu, ehundaka boluntario, bazkide eta ezkutuko langile.

Elkartearen lehen urteetan ekin zion lanari Aranburuk, eta urte askoz aritu zen bertan; lehendakaritzara ere heldu zen. Orduan izan ziren Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen sorrera, baita Bizkaiko eta Arabako Bertsolari Txapelketa bateratuak ere. Baina, Aranbururi elkarteko bere momenturik garrantzitsuenaz galde-tuz gero, zalantzarik barik, hezkuntza formalera saltoa dela dio, Jon Lopategiren eskutik.



**«Bizkaiko Bertsozale Elkarte goiztiarra izan zen. Indarren konfluentzia baten ondorio da: herri mugimendua, Ikastolen Elkarte eta besteren artean. Nire sentsazioa da bateko eta besteko indarrak hartu genituela»**  
*Natxi Aranburu*



## Hedapena eta hedapena


Egiari zor, Aranbururen sasoiari hartu zuen gaur egungo elkarteak bere izena eta forma: berak kargua hartu zuen garaia izan zen horretarako lehen pausoa. Lehen elkarte hori hamar urtez egon zen indarrean, eta 1993an eratu zuten Bizkaiko Bertsozale Elkarte formalak, eta bere lehen lehendakaria izan zen Aranburu. Horrela, garai horretako zuzendaritza kideei eta boluntarioei egokitu zitzaizkien egitura zehatzik ez zuen elkarte bat hartzea eta berari dominatzea; are, txukuntzea. Sasoi horietaz berba egiterakoan, Aranburuk ez du gutxitan errepikatu «dena zegoen egiteko» esaldia.

Eta horretan ezinbesteko pausoa izan zen hezkuntza formalean muturra sartzeko hastea: «Salto kualitatiboa egon zen hezkuntzara sartzearekin batera, zabaltzeko prozesu bat zen. Lopategik esaten zuen,

bertsolaritza sustatzeko, sarea zabal bota behar zela». Eta horixe egin zuten: Jon Lopategiren eskutik Ikastolen Elkartearen hasitako proiektua gainontzeko ikastetxeetara ere zabaltzeko hautua egin zuten, Lopategiren lehen esperimenduak izandako arrakasta ikusita.

Horretarako, pauso batzuk eman behar zituzten. Lehenengo ikastetxeetara joaten ziren, eskolak nork hartu gura zituena galdetzen, eta taldetxoak eratzen zituzten horrela. Behin hori eginda, ikastetxeetan arduradun bat jartzen zuten, normalean, bertsozalea. Eta behin harrobia sortuta, nabarmentzen ziren bertsolariak batzen zituzten. Horretan ere Jon Lopategi izan zen izen garrantzitsua bat, baina Jose Luis Basterretxea *Altzalei* ere ibili zen herriz herri.

Momentu horretara helduta, beste pauso bat emateko premia zegoen: erakundeekin hartu emanak. Hori zertxobait kostatu zela dio Aranburuk, aurreiritzirik bazegoelako bataren zein bestearen aldetik: «Mundu instituzional ofizialak identifikatzen gintuen ezker abertzaleko jendetzat. Kostatu zen. Baina uste dut denok egin genuela ahalegina». Horretaz galdetuta, hain zuzen ere, go-goan du Bilboko Udalgaz izan zuten lehen bilerako anekdota. Egun horretan, Altzalei eta biak esku hutsik joan ziren hiriburura: «Ez dossierrik ez ezer ez genuen eraman, bat-batekotasuna guztizkoa zen». Baina, han nonbait fin aritu ziren, honako erantzun hau jaso baitzuten Jon Koldo Arangoiti Bilboko Udaleko Kultura zinegotziaren ahotik: «*Hay que enseñar el euskera de una forma cachonda*». Horixe zen bere bertso munduaren definizioa: euskara era umoretsu batean.





**Jon Lopategi, 1987ko Araba-Bizkaiko txapelkun, Arriaga Antzokiko eskaileretan. Beragaz daude, Karlos Ibarzabal, Begoña Iturriza, Juanjo Basterra, Joserra Bilbao eta Koldo Tapia. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA.**

Oztopoak oztopo, argi zeukaten elkartearen helburua bertsolaritza hedatzea zela, eta horretan beste pauso garrantzitsu bat izan ziren BBK Sariketa eta Bizkaia Irratia, eta biak daude lotuta. Lehena, BBK Sariketak, Joserra Bilbaoren beharrari esker heldu zen, eta zera dio bere inguruan Aranburuk: «Txapelketa horrek bide ematen zuen hezkuntza munduari halako gailur txiki bat emateko kurtsu amaieran, eta, beste alde batetik bertso eskoletatik plazetara zabaltzeko era bat ere bazen». Eskoletatik plazarako saltoa leuntzen zuen txapelketak, baita Bizkaia Irratiak ere, saioak egiten baitzitu- en eskoletatik bertatik. Berriz ere, hedapena.

Eta hedapen horren azken puntua

zen Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. «Txapelketa hedatze prozesuaren parte zen. Niri tokatu zitzaidan hedatze prozesu horren lehen kimuak». Lehen kimu horiek, lehen finalak, Arriaga Antzokian ziren: «Orduan Arriaga zen gure totema. Gailur handia izan behar zen, horregatik Arriaga; leku ederra zelako». Baina hori ere txiki geratu zitzaion Bizkaiko bertsolaritzari, eta hortik Euskalduna Jauregi- rako saltoa egin zuten.

### **Bulegoko lanak**

Aranburu hasi zenean, berak errepikatzen duen gisara, ez zegoen ezer, «mahairik ere ez». Bera lehendakaritzan izandako urteetan, ostera, zentzu horretan eman ziren pausoak, eta lehendakaritza utzi zuenerako, 2002an, bazegoen



6


**Gernikan, 1987an. Bizkaiko Bertsozale Elkarteko sortzaile eta Zuzendaritza Taldeko batzuk: Ireneo Ajuria, Jon Lopategi, Joseba Etxebarria, Jon Enbeita, Joserra Etxebarria, Xabier Arriaga Txiplas, Jon Arriola eta Xabier Amuriza. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA.**

zelanbaiteko egitura bat. Karmelo Uriartek hartu zuen bere lekukoa lehendakaritza, eta Uriarteren urteak bizi izan zituen lehenengo Leire Markuerkiagak. Elkarteko kudeatzailea izan zen urte luzez, eta esker ona besterik ez dauka Uriarterentzat; eta, kontuan hartuta bulegoko behargin bakarra zela eta denetik egin behar zuela bere kontura, ez da seinale txarra.

Markuerkiaga beharrean hasi zenerako, 2000. hamarkadarako, jada bazeuden baliabideak eta elkarteak bazuen gorputz bat, egitura bat. Eta hori nabaritzen zen eskaeretan, egin beharreko lanetan: «Izugarria zen urtetik urtera zenbat hazten ziren eskaerak, ahoz ahokoak oso

ondo funtzionatzen zuten eta beti zeuden udalak edo eskolak ikastaroak eman nahi zituztenak. Horrek ekarri zuen urtetik urtera kontratu berriak egin beharra». Eskaera horiek ekarri zuten Markuerkiagaren beharra biderkatzea: «Erakundekin harreman estua geneukan, batzar asko izaten genituen udalekin eta Aldundiarekin, tokatzen zen tokian».

Arestian aipatutako ezkutuko lan horren adibide garbia da Markuerkiaga. Tituluz kudeatzailea bazen ere, elkartean sortzen ziren beste milaka zereginen arduraduna ere izan zen, baina beti bigarren lerrotik, bere izenik eta aurpegiarik inon agertu barik. «Dena nik bakarrik egiten nuen. Lehendakaria nuen alboan,



Karmelori eskertuta egongo naiz beti, oso harreman estua egin nuen beragaz. Diru kontuetako Miren Itziar Basterretxeagaz egiten nuen, diruzaina. Baina bulegoan ni bakarrik. Txapelketako materiala eraman behar bagenuen furgonetan nik egiten nuen, diru kontuak ere nik». Izan ere, elkarteko lana, profesionalaz gain, borondatezkoa ere badela argi zuen, proiektuan sinesten duen jendearen lana zela: «Ikusten nuen inguruan jende boluntario asko zegoela, eta nik ere ez neukan arazorik. Argi zegoen elkarreak zer eskatzen zizun, baina emateko ere ez zeukan arazorik: eskatu bai baina eman be bai».

Elkarrearen hazkunde bizkor bat bizi zuen Markuerkiagak, eta egiturak horri erantzun behar ziola argi dauka: «Argi ikusi genuen hezkuntza proiektuak pertsona bat behar zuela behargin bat berarentzat bakarrik: behargin gehien daude bertan eta urtetik urtera handitzen joan zen. Hortik hasi zen handitze kontu hori. Behin hori eginda, errazagoa izan zen». Beharginez ari denean hezkuntza formaleko irakasleez ari da. Berak kudeatzaile lanak hasi zituenean zazpi inguru izango ziren, eta urte gutxian bikoiztu egin zuten kopurua. Gaur egun, ostera, hogeitik gora dira.

Markuerkiagak aipatutako aldaketa hori, hezkuntza proiektuen koordinatzaile izendatzearena, Asier Ibaibarriaga lehendakari zela egin zuten, eta Markuerkiagak gaketzat jotzen du, egituratzean laguntzeaz gain, lan karga nabarmen gutxitzea ekarri baitzuen. Eta horrela joan zen Bizkaiko Bertsozale Elkartearen handitzea, «astiro-astiro», Euskal Herrikoarekin batera: «Beti egon dira harremanetan, nik oso harreman zuzena eta



**«Izugarria zen urtetik urtera zenbat hazten ziren eskaerak, ahoz ahokoak oso ondo funtzionatzen zuen eta beti zeuden udalak edo eskolak ikastaroak eman nahi zituztenak»**

*Leire Markuerkiaga*

**«Ikusten nuen inguruan jende boluntario asko zegoela, eta nik ere ez neukan arazorik. Argi zegoen elkarreak zer eskatzen zizun, baina emateko ere ez zeukan arazorik: eskatu bai baina eman be bai»** *Leire Markuerkiaga*

ona bizi izan nuen eurekin. Eurek ere txikiagoak ziren eta handitzen zeuden».

## Emakumeak lehen lerroan

Elkarte sendo bat zegoela hartu zuen kargua Belate Olabarriak, 2017an. Betidanik izan da bertsozalea, eta gai jartzaile zein zuzendaritza taldeko kidea. Ondo eza gutzen du barrutik elkarrea, beraz, eta dio oso ondo antolatuta dagoela: «Bertsozalea bazara, ikusten duzu zelako antolaketa dagoen elkartean eta zelako sarea dagoen bertso eskoletan. Sarea oso ondo dago lotuta. Gai jartzaile taldean funtzionamendua bikaina zen. Zuzendaritzan beti ikusi izan dut lone Narbaizak [elkarteko koordinatzailea] egiten duen lana, oso ondo antolatuta dago». Hain zuzen ere, kargua berea bada ere, zuzendaritza taldeko kideekin batera egiten du elkarteko lehendakaritza lana: «Oso gus-tura nengoen zuzendaritza kideekin, batek izan behar du lehendakari baina gura nuen talde lanean funtzionatu eta hori egiten dugu».

Elkarteko lehen emakumezko lehendakaria da, eta ez da kasualitatea: zuzen-



daritzak egindako hautu kontziente bat izan da, pausu bat eman gura izan baitute eta bertsolaritzaren gaur egungo errealtatera hurbildu. Eta lehendakariaren hautaketa kasualitatea ez den moduan, elkarteak egun duen ardura nagusienerako bat ere ez da ausaz sortu: plazetan emakumezko bertsolarien kopuruaren sustapena, alegia.

Elkarteak indar handia jartzen du hezkuntza formaleko eta bertso eskoletako proiektuetan, eta horko zifrak nahikoa pa-



**«Bertsozalea bazara, ikusten duzu zelako antolaketa dagoen elkarteetan eta zelako sarea dagoen bertso eskoletan. Sarea oso ondo dago lotuta»** Belate Olabarria

rekideak diren arren, plazetara salto egitean desorekatzen dira kopuruok. «Hezkuntza arautuan ikusten dira neskak batzuk bertsotan ederto egiten dutenak, eta BBK Sariketan be ikusten da. Baina plazara saltoa egiteko orduan indar egin behar da, datuek erakusten dutelako behera egiten duela euren kopuruak». Hortxe ari dira indarra jartzen, bertso plazak pertsona ororentzat leku abegikor izan daitezten. Oraindik egiteko luzea dutela dio: «Hor lan handia dago oraindik, gizarte osoan moduan. Emakumeak bertso plazetan ikusarazteko ahalegin horretan jarraitu behar du elkarteak».

### **Askoren arteko lana, bueltan herriari**

Elkartea elkarte bada ehundaka eskuk egindako beharragatik da, boluntario lana



askotan. Eta boluntario berbaren esanahia bada ere beharra egitea bueltan ezer jaso barik, ez da hori elkartean horretan aritu direnen sententzia. «Pertsonalki herri honi zerbait eskaintzen diozun sententzia ematen dizu, ahozkotasan eta autoantolakuntza gaitasunetik. Euskal Herriko mugimendu indartsu bat da elkartea. Eta horrez gain, lagun pilo bat ere eman dizkit», dio Aranburuk.

Horrela, elkarteari gaur egunetik begiratuta, egindako lanaz harro dago Aranburu, baita lerrootan agertutako izenak eta agertu ez direnietatik asko ere. «Gaur egunetik begiratuta, egituratuago



eta antolatuago ikusten dut elkartea. Antolatze eta egituratze horretan jakin izan dugu herri mugimenduen ezaugarri propioak mantentzen. Inguruak sekulako errespetua digu, zentzu onean», laburbildu du Aranburuk: «Behetik gorako eten bariko jarioa da».

• **Eskerrik asko** erreportaje honetarako elkarrizketatutakoei: *Kristina Mardaras, Natxi Aranburu, Leire Markuerkiaga eta Belate Olabarria*. **Eskerrik asko, baita ere**, datuak eman dituztenei: *Jose-rra Bilbao eta Unai Iturriaga*.



# ·Elkartearen sorreraz

Joserra Bilbao Otaola

Doinua: *Baserrian jaio nintzan (Habanera)*

Mila ta bederatziehun  
eta laurogeita hiruan  
Bizkaiko bertso-eskola  
kumetxoen inguruan  
ilusioa gainezka  
ideia asko buruan  
eta batu egin ginen  
sortu eta segituan  
Algorta eta Durango,  
Mungia ta Santutxu han  
Gernika eta Eibar  
ere ziren gure onduan  
nahiz eta bakoitzak jardun  
bera jaio zen lekuan  
anai eginda agertu  
gura genuen munduan.

Luzeak gure asmoak  
laburra egonarrria  
Karlos eta ni bitartez  
bideratuz aldarria  
Gobernadorearentzat  
oso asunto larria  
nahiz «Bertsolaris Noveles»  
zen izen barregarria.  
Legeztatu ta ahaldundu,  
pausu erabakigarria  
baina ez dezagun ahaztu  
non zegoen oinarria:  
Xabier Amuriza eta  
Joserra Etxebarria  
haiek jarri zutelako  
guzti honen ongarrria.



# ·Hezkuntza Arautuaz

Arantza Plaza Zamora

Doinua: *Bertsuak jarri dizkat (Bermioko portuan)*

Hezkuntza arautua  
da gure zelaia  
eta bertan bertsoa  
zeregin alaia.  
Guk zorionez bera  
dogu bizigaia.

Duela urte batzuk  
talde bat, talde bi...  
Orain milakume ume  
hortxe guri adi.  
Pentsaezina zana  
bihurtu da egi.

Saiorik saio bizkor  
ibili ohi gara.  
Makinatxo bat ume  
hurbildu da jada  
bertsolaritzara ta  
euskal kulturara.

Hezkuntza arautua  
eta hainbat alor  
Bizkaiko Elkartek  
landu dau emonkor.  
Behar gaitun guztian  
izango gaitu hor.

Bilbertso, topaketa  
edo irratsaio  
kantaldiak be hantxe  
serio-serio.  
Hanketan dardara bat  
daukat oraindio.

Etorkizun sendo bat  
desio deusuet.  
Nik desioa eta  
erantzuna zuek.  
Halan bada, beti lez  
maiteko zaituet. (bis)



# •Zuzendaritzaz

Goizalde Afxutegi Rodriguez

Doinua: Durangatik gorako / Zortzi nobioena

"*Prestatu behar dituzu  
Goizi bertso batzuk*"  
eskatu zidan Paulek.  
A ze marroia, glup!  
Bertso munduan nik gaur  
egingo dut debut:  
Zuzendaritza zer den  
kontatu behar dut.

Excelak, powepointak,  
borroka sutsuak...  
Ardurak eta lanak,  
pozak eta izuak.  
Faltan ditut Itziarren  
PyG luxuak,  
Josebaren gerizak,  
Moisesen musuak.

12

Sartu lapiko baten  
6 bat eskualde.  
Berdin da Lilibertso,  
Far West edo ALBE...  
Hilean behin Durango  
dugula sukalde,  
bertsolaritza eta  
bertso eskolen alde.

Belate eta lone  
lanaren testigu.  
Bazkide zintzoak (e)ta  
kutxan nahiko diru.  
Nahiz ez dugun izan nahi  
inoren eredu,  
Repsolekoak baino  
hobeto gaude gu!

Erronka hori baita,  
elkarrekin goazen.  
Erabakiak hartzen  
baitira errazen  
11 ahots ezberdin  
bakar baten batzen.  
Nik han ikasi nuen  
iritziz aldatzen. :p

Lan taldea presente  
erabakietan,  
borondatezko lana  
bazter guztietan.  
Gure indarra hori da  
pentsatzen hastean,  
denok beharrezkoak  
gara Elkartean.



# ·Emakumeen plazaratzeaz

Kristina Mardaras Sedrun ·

Doinua: *Hemen zizurkildar bat (Jardin bat zureztat)*

Konta egizu Kristina  
Zure historia  
Lauzkitu egiguzu  
Pixkat memoria  
Bertsoa zer genuen  
Nor zen kantoria  
Noiz agertu zen lehen  
Andrazko txoria  
Eta zergaitik zaren  
Zu bertsolaria

Herrigintzan nenbilen  
Ta lana gainezka  
Etxea ta euskara  
Inondik ez festa.  
Bertso eskolan berriz  
Mutil eta neska  
Baina plazandrera  
Ausardirik ezta.  
Non da emakumea?  
Horra nire kezka.

Urteak pasa a(ha)la  
Ondu da balantza  
Ziara, Iratxe, Oihane,  
Miren eta Onintza  
Maialenek argitu  
Dit buruko baltza  
Gazte eta koloretsu  
Dakusgu baratza  
Lanaren fruitua da  
Ez da esperantza.

Horra eskabidea  
Ta nik erantzuna  
Larogeiko urtera  
Doakit garuna  
Orduan hasi gendun  
Bertsoen jarduna  
Andrak desiertoan  
Geroa iluna.  
Hara zelan joan zen  
sortuaz eguna.

Bertso eskola izan zen  
Gure kainabera  
Bertatik igerian  
Ibaizabalera  
Auzotik hirira ta  
Barnetik kalera  
Pauso txikian baina  
Guztiok batera  
Ezer ez baita lortzen  
Goizetik gauera.



# ·Gazteen plazaratzeaz

Haizea Telleria Urkijo

Doinua: *Gogoratuko zara*

Gaur plazan dabilena  
oholtza batean  
bide bat egina da  
igo den artean  
beldurrak ta ezinak  
direnez kaltean  
mundu oso bat dago  
plaza bat hartzean  
inor ez dator hona  
berez bat batean

Geletan ginen haurrak  
bertsotan itzarri  
gero idatzizko bat  
ta bi final larri  
eskolartekoa da  
hainbaten pizgarri  
barnetegitan zenbat  
lagun eta irri  
mundu bat diguzue  
begi bistan jarri

Oholtzaratzea beti  
ez baita seguru  
neska gazteok pasa  
ohi dugu apuru  
baina beste modu bat  
dugunez helburu  
gure neurriko plazak  
sortu ohi ditugu  
denbora luzez hemen  
jarraituko dugu

14

Ala ere ez gara  
ama bako katu  
elkartearen lana  
behar da aipatu  
ze inork kantatzera  
nahi badu ausartu  
beharko du nork bultza  
eta nork oratu  
eskerrak gaituzuen  
horren goxo hartu

Horrela irten ginen  
gehienok plazara  
ta gero aliantzak  
eginez joan gara  
bertsoa izan daiten  
zerbaiten islada  
etorri dira mila  
proiektu bultzada  
plazaratzea ere  
kolektiboa da

Plazan baikabiz nahiz ta  
behin ez ginen asmoz  
bideak izan arren  
bere asun, larros  
bertsoaz ez garenez  
nekatu oraingoz  
gure ahotsa jarriz  
darraikigu gogoz  
bidea egin ahala  
gozatzeraz gatoz



# ·Txapelketaz

Igor Elortza Aranoa

Doinua: *A, a, a, ardo gorri naparra*

A, a, a

Badator txapelketa  
Hainbeste prestaketa  
Asmo ta ameseta

Ah, ah, ah

Danok lagunak gara  
Neu edo kamarada  
Kanporatzen ez bada

A, a, a

Hartu daigun arnasa  
Daukanarentzat jasa  
Kalean dago plaza

E, e, e

Ehundaka bertsozale  
Inoz ein barik kale  
Indarraren seinale

E!, e!, e!

Aiama ta aiene  
Ibili gero erne  
Ez bihurtzeko meme

E, e, e

Gai eta bertso bete  
Inozko onena neuk'pe  
Aurten entzun nahi  
neuke

I, i, i

Hamaika bertsolari  
Burus burukora bi  
Ta bakarra gidari

Ñi, ñi, ñi

Momomo ta mimimi  
Nor dan begiko nini  
Haixe gura ipini

I, i, i

Oingoaz zenbat aldi?  
Elkartea aspaldi  
Dago egina handi!

O, o, o

Gitxi, oso ondo, nahiko  
Ez dabe askok nahiko  
Ibili epamahaiko

Jo, jo, jo

Danok erdi forofo  
Sandia dabil flojo  
Berendiagaz ojo!

O, o, o

Dana (erdi) prest dago  
Bolondresak? Akabo!  
Inoz baino gehiago

U, u, u

Irabazi ta galdu  
Balei garbi azaldu  
Kontrakorik ez saldu

Uhu, uhu, uhu

Ni, zu, bera eta gu  
Lehiarena hain klaru  
Ondiño ez daukagu

U, u, u

Gozatu behar dogu  
Hainbeste bertso modu  
Entzuteko gogoz gu



# •Txapelketaren beste aldeaz

Idoia Anzorandia Kareaga

Doinua: Bizkaiko Aberatsak

Bertsolariak batu,  
gaiak, panfletoa,  
udalak, epaileak,  
mikroa, petoa,  
kartzela, ui! Ganbara!  
Ura, aretoa,  
bilera, albistea,  
prentsa, ordezkoa...  
Beti desberdina eta  
beti antzekoa!

Nik ez nuke epaile  
izan nahi aukeran,  
bertso bati zenbaki  
bat jartzeko eran  
gogor bustitzen dira  
saioero primeran,  
baina gero kritikak  
datozkie hegan...  
Denok gara epaile  
saio bukaeran!

16

Ploterra gorantz eta  
azkar aldeaz alde,  
soinu frogak, aulkiak,  
txarteldegia be.  
Zenbat broma, zenbat lan,  
zenbat ustekabe!  
Sarri haserre baina  
haserretu gabe...  
Honen parte izateaz  
oso harro gaude!

Miren Itziarri zor  
zaio aipamena  
saio osoan zehar  
a ze zoramena!  
Izenak, zenbakiak...  
kontrolpean dena  
oholtzara bidean  
doa ebazpena...  
Saio guztiek duten  
momentu gorena!

Gai jartzaileon lana  
masoka samarra  
astero hamaika orduz  
egiten beharra.  
-gintza/-ismo guztiak  
direnez iparra,  
denak oholtzaratzeko  
nahia eta beharra...  
Total, gero entzuteko:  
'Gai hori ze txarra!'

Azken argia itzali  
da dagoeneko,  
txapel bakarra baina  
txapeldunez lepo!  
Nahiz egin zitekeen  
agian hobeto...  
Nahiz gauza asko dauden  
igual aldatzeko...  
Gu prest gaude berriro  
lanean hasteko!





# •Errioxara bidaiaz

Moises Enbeita Ealo

Doinua: *Libre zara libre aitte (Abadiño San Blasetan)*

Bertsozale Alkartea (bis)  
Bizkaitarron aldartea,  
bertsogintzaren geroa  
babesteko atarte.  
Bizkaitarron aldartea,  
babesteko atarte.

Atzo sortu zalakoan (bis)  
berrogei urte kolkoan,  
mila oroipen zintzilik,  
lau haizetara kakoan.  
Berrogei urte kolkoan,  
lau haizetara kakoan.

Batzuen asmo sakona (bis),  
zaletasunak emona,  
Herria bertsozaletu  
egin da ordutik hona.  
zaletasunak emona,  
egin da ordutik hona.

Ondo goazen bermea (bis),  
bagendun, bai, hutsunea,  
lehendakarien aulkian  
lehenengoz emakumea.  
Bagendun, bai, hutsunea  
lehenengoz emakumea.

Zenbat urte hainbat ames, (bis)  
Errioxara erromes,  
berrogei koplatan ere  
ezin geinkez sartu errez.  
Errioxara erromes  
ezin geinkez sartu errez.

Mahastietatik kanpora (bis),  
aurton dakargu bertora,  
urteurren berezi hau  
Ixorretako solora,  
aurton dakargu bertora.  
Ixorretako solora.

Dinoen legez, ezina, (bis)  
ei da ekinez egina,  
hargaitik buztartu doguz  
ardaua ta txakolina.  
Ei da ekinez egina,  
ardaua ta txakolina.

Zaletasun galarrena (bis),  
olatuak dakarrena.  
Berrogei urte enbatak,  
baina sorrerako sena.  
Olatuak dakarrena,  
baina sorrerako sena.

Irrintzia edo kopa (bis),  
egin daigun danok topa:  
ehun bat urte, gitxienez,  
iraun dagiala opa  
egin daigun danok topa,  
iraun dagiala opa.



# •Librean

Onintza Enbeita Maguregi

Doinua: *Aita asmo hartu det (Mundua ala gu)*

Oskol azpitik urten  
genduan plazara:  
guztia zan konpleju,  
zalantza, ikara.  
Jaso bagendu inoz  
babes besarkada  
baina esaten jakun  
esaterik bada:  
*«lotu eskuak eta  
paparra atara!»*

Txapelketan sartuta  
udazken bolada  
gitxitan ailegau naz  
perretxikotara!  
Hankaluzea dala  
potoa ez bada  
burua estuegi,  
galduta patxada:  
ez euskuen esaten  
paparra atara!

Feminista agertu  
ezkero plazara,  
geurekoiak, harroak  
edo guayak gara.  
Bakotxa bere gudei  
eutsiz bizi bada,  
gurea be ezta moda,  
aldia, bolada,  
beraz ez defentsiban  
paparra atara!

18

Esku biak atzean,  
okotsak dardara,  
genduzala hurbiltzen  
ginen mikrotara.  
Hamasei urte, andra  
forma neukan jada  
neuk ikusita neure  
itzala, islada:  
ezin neban paparra  
gehiago atara!

Beste danen moduan  
hazi egin gara  
lehen bakanak ginena  
orain taldea da.  
Neska piloa batu  
dira bertsotara  
gai barriak ekarri  
nahi doguz plazara  
ta orain ezin dogu  
paparra atara!

Plaza aldatuz doa  
danaren erara  
irauteko beste lau  
zein bost hamarkada,  
«lari», «zale» ta «tzaile»  
danok behar gara.  
Beraz, onean bizi  
bertsoen zirrara  
ta momentu txarrei  
paparra atara!

# •Librean

Xabier Amuriza Zarraonaindia

Doinua: *Neska zar bat tentatzen*

Bertso moduko batzuk jarri asmoz nago motiboa dalako ezin gustosago. Bizkaiko Bertsozale Elkartean harro dagozanak badira Bizkaiaz harago.

Hemen nator berrogei urteri kantari. Ez dira gitxi baina nik doble eta bi! Haize batek dinotso brankatik popari: «*Laster mende erdi bat dala oroit hadi*».

Errioxa, lurreta ezbardin bitzuak gaur be ondorioak baietz bardintsuak. Goizean erdi mutu gabaz barritsuak anitzak diralako gure zerbitzuak.

Lortu dogu heltzea sanorik gainera diktadura ospetsu baten adinera. Argi da ekinetik ondo eginera amesten dan guztia ez dala kimera.

Berrogeikoa bada ez sinestekoa hona belaur barrien etorri freskoa. Gaur hemengo adinen batezbestekoa. Horixe bai benetan dala berezkoa.

Berrogei urte joan dira ia hegaz Txiritaren larogei beste hainbestegaz. Ehungarrena prestetan hasi leike, beraz. Ni zenbat makulugaz helduko ete naz!

19



Asmotsu sortu zanak osasuntsu dirau bakar-lan noble baten taldea subirau. Geroa gerorako ospatu daigun hau kontrakorik ez bada merezi izan dau.



IURRETAN, 2023ko irailaren 9an



bizkaiko  
bertsozale  
elkartea